

Heriotza lokartua



Hilketa lokartua

Jatorrizko izenburua: Sleeping Murder

Egilea: Agatha Christie

Itzultzailea: Xabier Aristegieta

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Igela

MIKEL GARMENDIA

"Lucrecia Borgiaren ondotik krimenarekin gehien irabazi duen emakumea", halaxe definitu zuen Agatha Christie Winston Churchill Nobel saridun ingelesak. Mundu osoan dira ezagunak "hilketaren erreginaren" eleberri beltzak. Horien artean, Igela argitaletxeak berak azken urteotan eskaini dizkigun *Orient Express-eko hilketa*, *Ainhua Eder-ek itzulia*, eta *Heriotza Nilo ibaian*, esku artean dugun eleberriaren itzultzaile berak, Xabier Aristegietak, euskaratua.

Heriotza lokartua eleberrian Agatha Christiek bere sorkuntza handietako bat desagerraraziko digu, Miss Marple, atso maitagarria, bere zuhurtziaren, umore onaren eta manien bitartez, denon harridurarako, kasu zail eta ilun askoak askatzen zizkiguna. Hala, eleberri honetan Gwenda Reed, emakume gazte ezkonberria Londona iristen da bere senarra baino lehen, haien bizitoki izango den etxea bilatzeko. Dilmouth-en lortzen du etxea, oso bere sentitzen duena, eta behin bertan bizitzen jarrita, halako bisioak izango ditu emakume ezezagun bati buruz... Gero Miss Marple ezagutuko du... eta beste hainbat eta hainbat gorabehera gertatzen dira misterioz beteriko eta ezusteko amaiera duen eleberri bizi honetan. Eleberria 1940 aldera idatzi izuen, Bigarren Mundu Gerra garaian eta 30 urtez segurtasun-kutxa batean gordeta egon ondoren argitaratu zen, egilea hil eta gero.

Agatha Christieren detektibe-prosaren ezaugarrietako bat *whodunit* izenekoa da, horri esker irakurleak hipotesiak egin baititzake eta, azken batean, kontakizuna amaitu aurretik erruduna nor den asmatzen saiatu baitaiteke.

Kontakizun bizi-bizia, Xabier Aristegietak lehendik ere ondo erakutsia baitzigun bere abildadea *Heriotza Nilo ibaian* itzuli zuenean, bikain euskaratua; inondik inora ez zaio igartzen itzulpena denik eta hori da itzulpen-lan bati gerta dakioken gauzarik onena. Ondo harrapatua die tamaina Xabierrek Agatha Christieren tonuari eta estiloari.